

## JESUS ETA BARTIMEO ITSUA

1

Bartimeo ta Jeriko  
gogoan doguz betiko.  
Bide ertzean dago itsua  
lagun bat noiz etorriko;  
“Nazareteko Jesus baletor”  
fedez dino berekiko.

2

Urruneko oihartzuna  
itsuak pozez entzuna:  
“Gora Dabiden semea, Jesus,  
salbatzera datorkuna”!  
Horrekin hasi jako argitzen  
bere barruko iluna.

3

“O Dabiden seme hori,  
erruki Bartimeori!”  
Jendeak gogor: “Hago isilik,  
ze erruki ta histori”!  
Baina errukiz betetzen jako  
bihotza Jesukristori.

4

“Ze gaixo edo eskeko?  
Joan ta esan etortzeko!”..  
“O Bartimeo, izan uste on,  
Jesusek dino joateko”.  
Jagi zan eta hasi sentitzen  
sinismen edo antzeko.

5

“O Bartimeo maitea,  
zer nahi dozu egitea?”.  
- O ene Maisu, ikusi nahi dot,  
badozu borondatea”.  
- “Zoaz, osatu zaituana da  
Nigan dozun sinistea”.

6

Pozez saltoka itsua,  
dana dago argitsua.  
Ez daki zelan eskertu-edo  
osatu dauan Maisua;  
eta herria goraka baten  
Jaungoiko errukitsua.

7

Non herren, itsu ta gorra,  
han Jesus errukiorra.  
Jesusen marka ezaugarri hau  
inok ezin eban borra;  
errukariarekin biguna  
gogorarekin gogorra.

8

Taldean edo bakarka  
itsuak lez deadarka:  
“Gaixoengan Zeu lagundu eza  
arren, Jesus, guri parka!  
Argitu gaizuz, ahaztu ez daigun  
zeure-zeurea dan marka.